Proiektuaren eremu geografikoa Durangaldean dugu, horrela zerbitzua euskaraz zein gazteleraz emateko aukera emango digulako. Gure arloan lagundu ahal diguten elkarteen artean hauek dira esanguratsuenak iruditu zaizkigunak: Ikastolen elkartea, Urtxintxa aisialdi eskola, Once, Lantegi Batuak…

| **Funtsezko elkarteak** | **Deskripzioa** | **Guk jaso haingandik** | **Guk eman haiei** |
|---|---|---|---|
| **Ikastolen elkartea** | Ikastolen Elkartea, Euskal Herri osoko ikastolak biltzen dituen erakundea da, ikastola bakoitza bertako bazkide da.Ikastola bakoitzak bere historia eta ibilbidea ditu, eta bere inguruaren errealitatera egokituta dago; baina guztiok partekatzen dituzte ezaugarri garrantzitsuak. | - Zubi lana<br>- Ikastola ezberdinei gure proiektua helaraztea | Promozioa<br><br>Aukerak zabaldu ikastolen hobekuntzak egiteko |
| **Urtxintxa aisialdi eskola** | Urtxintxa Eskola, 1986an sortutako irabazi asmorik gabeko elkartea da. Aisialdi Hezitzailea eta Soziokulturala bultzatu nahi du. Hezkuntza Ez Formalean aritzeko asmoarekin, aisialdia sustatzeko helburuarekin eta Euskal Herria aintzat hartuko duen Eskola laikoa sortzeko beharrak bultzatuta. | - Zubi lana<br>- Aisialdi talde ezberdinei gure proiektuei helaraztea<br>- Dinamika ezberdinak egiterakoan Aniztasun Funtzional ezberdinak dituzten pertsonei egokitzea, eta dinamika hauek hezkuntza sisteman modu eraginkorrean aplikatzen saiatzea. | - Urtxintxaren bidez, amarauna proiektuaren barnean dauden aisialdi talde ezberdinei aisialdi eredu inklusiboena sortzen laguntzea, horretarako, planean, proiektuan eta programazioan esku-hartuz. |
| **Once** | Espiritu gaztea duen erakundea da, gizarte-errealitate aldakorrera irekia eta dinamikoa. Itsuei edo beste aniztasun funtzional bat duten pertsonei, haien autonomia pertsonala eta bizi-kalitatea hobetzeko helburua dute.Urtero berritzen dute haien zerbitzua. | - Aniztasun funtzional sentsoriala daukaten pertsonekin erabili daitezkeen baliabideak erakustea eta hauek non lortu erakustea.<br>- Kolektibo honekin hezkuntzan egin daitezkeen jarduera ezberdinak egitea, inklusibitatea bermatzeko | - Promozioa eta ikusgarritasuna. |
| **Lantegi Batuak** | Irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta AF duten pertsonentzako lan-aukerak sortzen ditu Bizkaian, pertsona horiek gizarteratzeko, ahalik eta garapen eta bizi-kalitate | - Aniztasun funtzional mota ezberdinak pairatzen dituzten erakundea denez gero, haien behar ezberdinak aztertzen lagun diezaguke, eta behar hauen | - Promozioa eta ikusgarritasuna. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | handiena izateko. Bezeroen beharrak AF bat duten pertsonentzako aukera bihurtzen dituzte. | arabera beste erakundeen laguntzaz hezkuntza sisteman aplika daitezkeen metodologia eta modu ezberdinak erabakiko ditugu, eskola arruntak ahalik eta inklusiboena izateko. | |
| **Fundación Síndrome de Down Pais Vasco** | Irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundea da, eta pertsona helduei autonomoak izaten laguntzen die, kalitatezko etorkizuna izateko eta gizartean parte hartzeko. Haien eginkizuna adimen- edo garapen-AF duten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzea da, kalitatezko laguntzak eskainiz, haien eskaeretatik abiatuta eta eskubide osoko pertsona gisa erabat gizarteratzen eta gizartean parte hartzen lagunduz. | - Aniztasun funtzional intelektuala daukaten pertsonen inguruko ezagutza garatu.<br>- Kolektibo honen inklusioa bermatzeko heziketa moduak bilatzen lagundu.<br>- Kolektibo honekin erabili daitezkeen baliabide ezberdinak ikertzen lagundu. | - Promozioa eta ikusgarritasuna. |
| **Rvalfa** | Entzumen aniztasuna edo asalduraren bat duten pertsonen zerbitzura daude, haurren zein helduen zerbitzura. Logopedia eta ahotsaren birgaitzearen zerbitzua ere eskaintzen dute | - Entzumenezko Aniztasun funtzionala daukaten pertsonentzako baliabideen inguruko ezagutza.<br>- Baliabide material egokiena zein den identifikatzen lagundu diezaguke eta horrela gela arruntean haien hezkuntza metodologia ahalik eta inklusiboena izan dadin bermatzea. | - Promozioa eta ikusgarritasuna. |
| **EVA betaurrekoak (Extended Visual Assistant)** | Ikusmen aniztasuna duten pertsonak laguntzeko betaurreko teknologikoak dira, honi esker eguneroko jarduerak nabarmen hobetu ditzake, hala nola ibiltzea, irakurtzea, objektuak ezagutzea eta sozializatzea. | - Haiekin akordioetara helduz kolaborazioak eta publizitateak egin ditzakegu. Betaurreko hauek, batez ere, dinamikak egiterakoan izango dira erabilgarriak. | - Publizitatea eta kolaborazioa<br>- Betaurreko hauen gakoetako bat da kamara bidez lortzen den informazioa textu bidez eskuratzen duela pertsonak. Hizkuntzari dagokionez euskerarako itzulpenak egin ditzakegu, argitaletxe ezberdinekin elkarlanean. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Elkar argitaletxea** | Elkar argitaletxea euskal kultura bultzatzeko asmoz sortu zen 1975ean, geroztik diskogintza eta liburugintza landu ditu, euskal musikari nahiz idazleen lanak plazaratzeko eta kulturaren hutsuneak eta beharrak asetzen laguntzeko. | - Baliabide ezberdinak Euskerara itzuli nahi ditugu, bai idatzizkoak, eta bai entzumezkoak. Horretarako argitaletxe honekin elkarlanean aritzea proposatu nahi dugu, baliabide hauen bidez inklusibotasuna bultzatzeaz gain, euskera bultzatzea ere lor dezakegu. | - Argitaletxeak loturarik ez daukan beste zenbait erakunderekin kontaktuan jartzea, azken batean zubi lana egitea. |
| **RV alpha (entzumenezko aniztasun funtzionala daukatenentzako entzungailuak)** | Entzungailu mota ezberdinak eskaintzen dituzte. Teknologia, Tamainak eta Gamak, Cros-Bicros audifonoak… eta ikasketa audiologikoak ere egiten dituzte. | - Haiekin akordioetara helduz kolaborazioak eta publizitateak egin ditzakegu. Betaurreko hauek dinamikak egiterakoan zein gelan egoterakoan izango dira erabilgarriak. | - Promozioa eta ikusgarritasuna. |
| **Ortoka ortopedia** | Produktu ortoprotesikoak eta laguntza teknikoak saltzen, fabrikatzen eta egokitzen dituen enpresa bat da. Haien helburu nagusia bezeroen bizi-kalitatea hobetzea da, bai produktu estandarrekin edo/eta pertsona bakoitzarentzat neurrira egindako produktuekin. | - Bilboko ortopedia honek heziketa arloko egoera ezberdinen aurrean Aniztasun Funtzional motorea daukaten pertsonentzako zein baliabide den egokiena aukeratzen lagundu diezaguke.<br>- Horretaz gain, material ezberdinak aztertzen lagundu diezaguke, eta material ezberdinen aurrean, egin dezakegun “eskola inklusiborako diseinuan” lagundu | - Promozioa eta ikusgarritasuna |